

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 16/2019 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa. Onespena ematea ingurumen eta nekazaritza eta klima laguntzak eta nekazaritza ekologikokoak arautzen dituzten oinarriak aldatzeari eta haien 2019rako deialdiari, EAEko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren barruan

Aldatzea ingurumen eta klimako laguntzak eta nekazaritza ekologikorako laguntzak (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren barruan ematekoak dira) arautzen dituzten oinarriak, zeinak Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren bidez onartu baitziren, eta onartzea laguntza lerro horren 2019rako deialdia.

Diputatuen Kontseiluaren ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren bidez onartu ziren nekazaritza-ingurumen eta klimarako laguntzak eta nekazaritza ekologikorako laguntzak arautzen dituzten oinarriak, eta orobat laguntza lerro horren 2016rako deialdia. Laguntza horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren barruan ematekoak dira, 1305/2013 zenbakiko erregelamenduak ezarritako mugen barruan, eta M10 "Nekazaritza-ingurumen eta Klimako neurriak" eta M11 "Nekazaritza ekologikoko Neurriak" izenez identifikatzen dira.

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 4ko 20/2017 Foru Dekretuaren bidez, aldatu egiten dira laguntza horien oinarri arauetako batzuk eta onartu 2017rako haien deialdia.

Foru Gobernu Kontseiluaren apirilaren 13ko 19/2018 Foru Dekretuaren bidez, aldatu egin ziren laguntza horien oinarri arauetako batzuk, eta onetsi, 2018rako deialdia.

Egun, eskatzaileek 18 eta 65 urte bitartean izatea da laguntza horiek eskuratzeko betekizunetako bat, nahiz eta betekizun hori ez den eskatzen Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020 Programan; horiek horrela, betekizun hori kendu egin behar da oinarri-arauetatik, bai eta betekizun horrek laguntzaren zenbatekoa gutxitzeko edo ez duen ahalemena ere onuraduna pertsona juridikoa denean.

Azkenik, kontuan izanik laguntza lerro horiek izapidetzeko Arabako Foru Aldundiko 2019ko gastu aurrekontuan kreditu nahikoa dagoela, beharrezko egiten da urte horretarako deialdia onartzea.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea nekazaritza-ingurumen eta klimako laguntzak eta nekazaritza ekologikoko laguntzak arautzen dituzten oinarriak (M10 eta M11 identifikazio kodeak dagozkie, hurrenez hurren), ekainaren 21eko 46/2016 Foru Dekretuaren eranskinean ezarriak. Foru dekretu hori apirilaren 4ko 20/2017 Foru Dekretuak eta apirilaren 13ko 19/2018 Foru Dekretuak aldatu zuten.

1.1. Ezabatzea onuradunen betekizunak finkatzen dituen 3. artikuluko 1.a) eta 2.b) letrak, eta artikuluen gainerako apartatuak berrizendatzea. Hona nola geratzen den idatzita:

3.1 Pertsona fisikoak:

a) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla frogatzea.

b) Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak izapidetutako zehapen edo itzulketa prozedura batean ez egotea.

c) Ez ezarri izana administrazio zehapenik ez zehapen penalik sexua dela-eta diskriminazioa eragin izanagatik, eta ez ezarri izana debeku hori emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen ondorioz (4/2005 Legea, otsailaren 18koa).

d) Ordainketa bakarreko eskaera egitea.

3.2 Pertsona juridikoak edo ustiategi elkartuak:

Ustiategi elkartuen kasuan, hala nola sozietate zibilak, titulartasun partekatua eta ondasun erkidego edo bestelako pertsona juridikoak:

a) Eskatzaileak aurreko 3.1 artikulua a), b), c) eta d) letrek pertsona fisikoei ezarritako betekizunak bete beharko ditu.

Sozietate zibilak, titulartasun partekatua eta ondasun erkidegoak izanez gero, kide guztiek 3.1.a) artikuluan ezarritako betekizuna bete beharko dute.

b) Nortasun juridikorik gabeko sozietateek ezin dute honelako laguntzarik jaso; salbuespena: jaraunspen erkidegoek jaso dezakete, baldin eta ituna egin bada sei urtean gutxienez indibisio egoeran mantentzeko. Sozietate zibilei eta ondasun erkidegoei dagokienez, eskritura publiko bihurtutako agirien bidez osatuta egon beharko dira. Halaber, ezin dute honelako laguntzarik jaso makineria erabiltzeko kooperatibek (MEK).

c) Kooperatibek Euskal Autonomia Erkidegoko Kooperatiben Erregistroan izena emanda egon beharko dute.

Foru dekretu honen ondorioetarako, urriaren 4ko 35/2011 Legean xedatutakoarekin bat etorritik titulartasun konpartitua duten nekazaritzako ustiategiek sozietate zibilek duten tratamendua izango dute, baina ez dute bete behar eskritura publiko bidez eratuta egoteko betekizuna.

1.2. Ezabatzea 15.3 artikulua, zeinek, laguntzen eta haien zenbatekoa kalkulatzearen harira, ezartzen baititu ustiategi elkartuetan aplikatu beharreko murrizketak, baldin eta haietako kideren batek betetzen ez baditu zerga egoitzaren eta adinaren betekizunak.

Bigarrena. Dirulaguntza lerro honetarako deialdia onestea 2019. urterako (LGNEFek jartzen du dirulaguntzen finantzaketaren ehuneko 75), honako ezaugarri hauekin:

– Nekazaritza eta ingurumeneko eta klimako neurria (M10):

– Ekoizpen integratua, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.1 azpineurria).

– Bertako animalien arrazak kontserbatzea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.3 azpineurria).

– Erlezaintza biodibertsitatea hobetzeko, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.4 azpineurria).

– Mendiko larreen aprobetxamendua kudeatzea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M10.1.5 azpineurria).

– Nekazaritza ekologikoko neurria (M11):

– Nekazaritza ekologikora bihurtzea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M11.1 azpineurria).

– Nekazaritza ekologikoari eustea, (Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020ko Programaren M11.2 azpineurria).

— Epea eta lekua: ordainketa bakarraren eskaerak aurkezteko ezarri den epean aurkeztuko dira laguntza eskaerak (2019ko otsailaren 1etik apirilaren 30era arte, biak barne). Eskaera Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren nekazaritzako Eskualdeko Nekazaritza Bulegoetako edozeinetan aurkeztuko da, hargatik eragotzi gabe urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritakoa.

Eskaera bakarra aurkezteko epe hori luzatuz gero, berez eta besterik gabe beste horrenbeste luzatuko da laguntza lerro hauetarako eskaerak aurkezteko epea.

— Kreditu erreserba: 962.761,40 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2019ra luzatutako 2018ko gastuen aurrekontuko 40.1.01.42.01.479.00.03 "Nekazaritza eta Ingurumen neurriak" izeneko partidaren kontura.

Esandako kreditua zenbateko gehigarriekin handitu ahal izango da, 11/2016 Foru Arauak, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 21. artikuluan ezarritako mugen barruan, baita ere aurrekontu partidaren edozein arrazoiengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez. Zenbateko gehigarri horiek, gehienez ere, hasierako zenbateko erreserbatua adina izango dira.

— Laguntzaren gehieneko zenbatekoa, nekazaritza ustiategi bakoitzeko: 2019ko deialdi honetan 18.000,00 euro ezartzen dira gehienez, nekazaritza ustiategi bakoitzeko, eskatutako neurriak gorabehera. M10.1.3 "Bertako arrazen kontserbazioa" azpineurrirako laguntzak arraza bat baino gehiagotarako eskatuz gero, gehieneko kopurua gehitu ahal izango da, honela:

— 2.000,00 euroraino, eskatzen den bigarren arrazako animalientzat.

— Aurrekoaz gain, beste 1.000,00 euroraino, eskatzen den hirugarren arrazako animalientzat.

Hirugarrena. Nekazaritzako foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, honako oinarri arautzaile hauen kontra nahiz deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren berraztertze errekurtsio guztiak ebazteko.

Laugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2019ko martxoaren 21a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

M^a ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE